

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

125n. Zenbakia

Abendua
Gabonilla
1988



EUSKO LEGEBILTZARIA
KULTURA BAZTE
LABORANTZAK



D. KLAUDIO'ren IRUDIA (S. ANTON'go ELEIZPEAN)

EUSKEREARI BURUZ

Gure egunkariak (gureak, emen Euskalerrian argitaratzen diralako diñot), gure errian jazotako guztien barriakaz orniduten gaitue, baiña bai kanpoko nai bertoko, dana iruditen jaku garrantzitsu eta baten baiño geiagotan gogoasare bizitan jartzen jaku bai kazetarien azalpenak edo eritxiak, edo auxe ala bestea dala-ta, egunkari on okerrez eta sentzungabekeriz aurkitzen dogulako.

Oraingoan baiña, aspimarratzeko gaia dogu: Iñaki Anasagasti'k "Shevardnadze y el euskera" izenaz, urtarrillaren 24'an "Deia" egunkarian idatzi eban idazkia aitatzeranoa.

Gertakizuna, Madrillen, Viana'ko jauregian, España'ko Kanpo-Arazoetako Ministroa dan Fernandez Ordoñez'ek bere kide soviertar dan Eduard Shevardnadze'ri antolatu eutson aparitako arrera ofizialean izan ei zan.

Apal-ostean, itzaldiak egin eta kafea artzera beste gela batera joanda izan zan, antza, Anasagasti'k, beragaz Shevardnadze'gaz berba egin aal izan ebanean; Tblisi'ko Unibertsitatean izkuntzalariak ezagutzen ebazala euskerea eta georgiaren artean dagozan artuemonak ikasteari ekiten eutsenak esan eutsonen. Zazpiren bat dirala lan orretan dabilzen ikerlari eta irureun itz edo dirala era batera edo bestera euskereagaz zerikusia daukenak. Beraz, oneri buruz esan geinke une onetan dagoan mundu-arteko gizon politikari ospetsuenetariko batek, gure euskerea paregabeko pitxia dala azaltzea ez dala auntzaren gau erdiko eztula.

* * *

Onezaz gaiñera, Paris'en, euskerea bigarren izkuntza bezela Unibertsitatean ikasi aal izateko aukeratua izan dala be, nunbaiten entzun dot.

Geiago oindiño: Ez dot ba, azkenengo egunotan egunkari onetan bertan idatzita ikusi Euskal Parlatuak Espaiñiar Jaurlaritzari euskerearen aldeko España eta Frantzia'ren arteko txosten edo itunbe baten izenpe-tzea eskatuko deutsola? Ez dakigu baiña, euskerarentzat emendik noraiño edo zelako ondorenak sortuko diran.

* * *

Bestalde, Bilbo'ko Erzilla Hotel'ean "Bategiñik" taldea edo batzordearen eskuz euskeraren aldeko "kanpai-ña" barria be aurkeztu ei da, "Guztioi esku bat luzatzeko eskatuz hasiera-hasieratik egiñikoa izan bait da" azalduz.

Batetik Antolaketa-Batzordeko kideak onetaraxe mintzatu ba dira; bestetik "Aholku Batzorde" onetako partaideak jente ospetsua izanik (17 lagun ei dira), baita 200 milloien laguntza lortzea elburutzat izanda, Euskalerrri guztiko Udal, Aldundi etabarretara jo eta lortu aal izango ba dabe, euskereak aurrera egiteko bultzakada aundia artuko dauan ezaugarria da edo izan leitekena da.

* * *

Agur egiterakoan baiña, ona emen albiste barn bat: Araba'ko Guevara jaunak, Estrasburgo'n, Oreja jaunaren esku ber-beratik "Nivel umbral del euskera" deritxon ikasketa artu ei dau. Oreja berak esana: "Nire asaben izkuntza bait da". Izkuntzen ugaritasuna ona dala baita aberastasuna, etabar-etabar.

Beraz, leen esandakoari eutsiz, baleiteke eritxiak, aukerak euskeraren aide dagozala; orain kaleratu, erriratu, dala kozka, akatsa.

SAN ANTON'EN

OMENALDIA

Bilbo'n, San Anton parroko eleizpean oroigarri bizi lez ikusi daikegu Gallastegi'tar Klaudio abadearen irudia. Ori dala-ta abade oneri omenaldia egin jakon, ondo irabazi eban omenaldia.

Guztiok ezagutu genduan D. Klaudio eta, gitxi gorabera, izan ebazan ekintzak eta goraberak be bai.

Gure ZER onen zenbaki onetan era bereziz gogoratzen dogu laguntzaille ona izan dogun abade au.

* * *

EUSKERIA DANEAN

D. Klaudio'k maite eban, benetan eta biotzez, euskerea eta toki guztietan euskaldunak euskeraz berba egitea nai eban, baiña, zori-tzarrez, Bilbo'tarrik geienak antxiñatik dauke galduta gure izkuntza. Ori ta guzti be D. Klaudio'k alegiña egin eban bere eleizan euskaldunak eta euskereak dagokien tokia izan dagien. Orretan eredu izan zan Bilbo'ko parroketan diran abade guztientzat.

D. Klaudio idazle ona da, olerkari ona be bai, zenbaki onetan Aita Santi'k agertzen dauan lez. Gure aldizkari onetan asko idatzi eban, batez be bertsoetan, baiña omena zor jako, geien, eleizan, Bilbo'ko eleiza baten euskerea sartzeko egin eban alegiñagaitik.

* * *

ESKUBIDEAK

Eleizea gizonen eskubideen aide jokatzeko toki aukerakoa da eta Barri Onak berak zabaltzen dau sarritan bidea eskubide orreine aide jokatzeko.

Eta ez bakarrik banakakoen eskubideak, erriarenak be bai.

D. Klaudio'ren jokabidea ez zan izan uts-utsean euskerearen alde, erri-eskubide guztien alde be izan zan. Eta ez da aiztu bear jokabide au oso arriskutsua zala berak parroki onetan igaro ebazan urterik geienetan, guda-ostean !aster asi eta aurrerantzean.

* * *

ZUZENDARI NOR DAN

Barri Onaren eta Eleizearen jokabidea ortik doana izan arren, errez ikusiko dogu eleiza askotan ez dala artzen bide ori. Orretan be esan bear, garrantzi aundi-koa dala norkia, eleiz-barruti baten zuzendari dana bera.

Guda-ostean parroki asko izan ziran artzain barik edo artzain egoki barik geratu ziranak. Ez aiztu 500 abade euskaldun eta abertzale izan zirala erbestera Euskalerrian. Gero, gaiñera, abadeen izendatzeak egitean eskua sartzen ebala agintaritzaz gogor arek. Uler-tzekoa da ba, iñoz edo sarritan jokabide okerrak sortzea, baiña gauza arrigarri bat izan zan D. Klaudio aldi aretan Bilbo'ko parroki aundi baterako izendatua izatea.

* * *

SAN ANTON EREDU

Begiratu begie Bizkai'ko eta Euskalerriko beste parrokiak D. Klaudio'k markatu eban bidea. Parroki guztietan, geiago edo gitxiago, sartu bear da elebitasuna eta bear ba'da mezaren batzuk euskeraz be bai. Onetan Bizkai'ko Eleizbarrutiak jokabidea artuta dauka eta ez dogu atzerarik egin bear.

Oker-ulertuak, erdeldunen jazarpenak eta olakoak izaten diranean, begiratu begie abadeak San Anton'era eta an eleizpean dagoan irudiak berba egingo dautse.



ON KLAUDIO'RI OMENALDIA

OMENALDIA

Benetan ederra izan zan On Klaudio'ri egindako omenaldia! Beraren parroki maitea izan zan San Anton'en ospatu zan azillaren lenengo igandean. Elizea bete-bete eginda. On Klaudio'ren berba sutsua entzun izan eben jendez gañezka.

Lenengo jarlekuetan, alde batetik, agintariak, Bilbo'ko alkate jauna, Bizkai'ko Aldun Orokorra, Lendakari jaunaren ordezkaria, eta abar... Beste aldetik, On Klaudio'ren senideak, Parrokietako Mixiolari-emeak. Elizaren leku eta bazter guztietan, barriz, jendea eta jendea...

• *

MEZEA

"Igandetan elizan" abestia, On Klaudio'ri ain atsegin izaten jakona kantatuz emon jakon asierea ospakizunari. San Anton'go abesbatzazagaz batera erri guztiak gartsu abestu eban... Eta gero, Azpillaga jaunaren bertso zoragarriak entzun genduzan. On Klaudio'ren izakerea agertu euskun bertsolariak argi eta garbi: "On Klaudio gizon aundi, abots aundi, eta biotzez aundiago!".

Bertsolariaren abestia zala-ta, an egozan askoren begiak busti-busti, egin ziran.

* * *

GOTZAIÑAK

Urrengo, On Juan Maria Uriarte, Bilbo'ko Gotzain-Laguntzaillea batzar-buru zala, zazpi abadek emon eben alkar-Meza.

Ebanjelioa irakurri ostean, berbaldi guztiz maintsua egin euskun On Juan Mariak, igandeko Ebanjelioa azalduz. "Kristori —esan eban- pariseotarren azaluskeria iguingarri izaten jakon. Barrukoa eta azalekoa batera etor daitezcan gura izaten eban Kristo'k. Onangoxea izan zan On Klaudio, argi-argi, tolesbakoa, egiazkoa, bere gauza onak eta ez ain onak be, garbi agertzen..."

* * *

ABESTIAK

Eskeintza bitartean, San Anton' go Abesbatzak Berrio -

-Otxoaren ereserkia, doñuz Arturo Intxaustirena eta berbaz On Klaudio'rena zana abestu eban. Zein polita bera, zein gozoa eta zein txairo entzun zan aren otsa San Anton'go elizan!

Sagaratze ostean, Bilbo'ko txistulariak AGUR JAU-NAK jo eben guztien biotzak ikara gozoz xamurturik.

Elizan egozan geienak jaunartu eben, eta bitartean, erri guztiak "Ogi zerutik" abestu eban, elizan tromoi-otsa zirudiala. Benetan gogoangarria izan zan une ori.

* * *

ANDRA MARIARI AGURRA

Baiña batez bere, unerik eztingarriena, Mezea amaitu zanean izan zan, Begoñako Andra Mariaren irudiari danak begira-begira egozala, San Antongo Abesbatzak eta elizan egozan guztiak "Begoña'ko Andra Mari, Bizkai'ko Zaindari" abestu ebenean.

Biotz guztiak dardarka eta begi guztiak bustita ikusi genduzan.

* * *

ELEIZPEAN IRUDIA

Ondoren, atarian, Bilbo'ko Alkate jaunak On Klaudio'ren irudia agertu eban, guztiak txaloka eta txaloka ziarduela. Dantzari batek aureskua egin eban, eta Gorordo jaunak On Klaudio'ri berba batzuk eskeiñi eutsazan.

Onango ospakizun zoragarria amaituta gero, an gelditu zan, atariko orman, On Klaudio'ren brontzezko enborra.

Irudiaren azpian auxe dago idatzita:

ON KLAUDIO GALLASTEGI
ABADEA

SAN ANTON'go PARROKOA
1938-1988

"BERBARIK EGITERIK EZ EBENEN **BERBEA**"
"VOZ DE LOS SIN VOZ"

ANASTASIO OLABARRIA
San Anton'go Parrokoa

D. KLAUDIO DALA-TA

J. A. Retolaza-gaz berbetan

—Esan egidazu, Jose Antonio: artuemon andia izan zenduan D. Claudiorekin?

—Andia eta luzea. Iragoko berrogetaz urteetan, ia nire bizitza guztian .

—Beraz, ondo ezagutu zenduan.

—Ondo ezagutu neban eta maite izan neban. Bai berak ere neu. Jakitun nago bere gaisoaldian, Maria Luisa gaiso-zaindariari, nitaz esandakoakaz: "José Antonio —esaten ei eutsan— (erderaz, emakume onek euskeraz ez daki-eta) es mi hijo predi/ecto "; ni nintzala, ba, bere seme kutuna.

—Ordu asko egin zenduezan alkarregaz?

—A sko! Ainbeste ordu alkarregaz, ainbeste ibilaldi, ainbeste gorabeera igaro genduan alkarregaz... Eta batez ere ainbeste eritxi, ames eta sentimentuetan bardinekoak izan gintzazan...! Guzti onek bat egin ginduzan.

—Badozu, orduan, zer esanik...

—Bai, baina bildur naz gaur, emen, D. Claudio-ri buruz berba egiten. D. Claudio ain gizon andia izan zan...! Aren ondoan ni ain txikia, nire fedea, nire kultura, nire berba egiteko erreztasuna ain eskaza... **Bildur**

naz nire berbak gizon andi ori bere lekuan ipiniko ez ete daben, murriztu egingo ete daben.

—Noiz eta zelan ezagutu zenduan?

—Gaztetxoa nintzala ezagutu neban D. Claudio, 1945 garren urtean-edo, nik 15-16 urte nebazala. Ordurako ba eroiazan D. Claudiok sei bat urte S. Anton-go parrokian eta bere izena eta bere esanak eta bere egiteak zabal ziran Bilbon.

Aldi aretan, Franco-ren denpora aretan, inor esaten ausartzen ez zan egiak esaten ebazan D. Claudiok. Domeka eguerdiko S. Anton-go Mezatarara jende asko joaten zan ainbeste neke, atsekabe eta sufrimendu artean atsegin pizka baten bila. Eleizan lekurik ez-eta altabosak ipini bear izan ebezan kanpoan. Baina denpora gitxirako, galerazo egin ebezan-eta. Alan eta ere jendea joan egiten zan eta geldi egoten zan, antxe, kalean, persekuzino eta egoera larri aren isileko protestan.

Aldi aretan eta beti, justiziaren aldekoa izan zan D. Claudio, bengantza kontrakoa, beartsuen abotsa, egizalea. Ainbeste denuntzia, multa eta desterru izan eban, baina burua garai atara eban beti. Pobreen /aguna izan zan, eta eurei, batez ere, laguntzeko "Misioneras parroquiales" lekaimen alkarteak sortu eban.



D. Klaudio, lekaime - bazkunaren sortzaille izan zan.

OMENEZ

—Noiz eta zelan ezagutu zenduan itandu deutsut...

—1945 urte orretan D. Claudiok gogojardunak emon ebazan S. Francisco parrokian gaztetxoentzat. Ni Santiago Apostol kolejoan nenbilen eta irakasle-praileak esanda, ara Joan nintzan. Eta aren berbaldiak entzunda begian sartu jatan D. Claudio ori. Gero, bere nortasun andiak erakarrita eta bere parrokiko Acción Católica "ko gazte taldearen abertzaletasun fameak erakarrita ere bertara Joan nintzan. Ondo artu ninduan. Bein barruan, dotrina-irakasle izendatu ninduan, umeekaz dantzari talde bat sortu neban, Acción Católica "ko "aspirantes" edo gaztetxoan arduradun ere izandatu ninduan... Eta andik laster, 18 urte nebazala, D. Claudio-ri poz andi bat emon neutsan beragana joanik abade izateko gai nintzan itandu neutsanean. Besarkada andi bat emon eustan. Aurre-rantzean gure artuemona, gure adiskidetasuna andia izango zan.

—Zelakoa zan izatez, D. Claudio?

—Gizon andia gorpotez eta gogoz edo biotzez. Gorpotez ia metro biko beetik gora, eta zabaleraz aldi aretan, ez ainbeste. Buruz, argia ere argia, oso argia. A dimen mota bi dira: bata (erderaz esanda) "especulativa" eta bestea "práctica". Badira ikasketerako asko balio dabena baina gero bizitzarako gauza ez diranak. D. Claudiok biak ebazan. Orrezaz gainera, gomuta, au da: "memoria retentiva"; itzala eukan. Gogo onekoa zan, eta gogo andikoa. Gazteakaz, gazte zan; pobreakaz, pobre; jakitunakaz jakituna; ez jakitunakaz, apala. Gogo argia, umore andikoa, bromazalea. Eta erderaz "sentido del humor" esaten dana, andia eukan. Jainkozale andia, abade zintzoa, abertzale andia, ameslari andia. Ikusten dozunez dana andia. A sarratzen zanean ere andia zan aren zarattea eta garraisia... abotsa ere andia eukan-eta; inguruko ormak ere dardaran jarten ebazan, baina une bateko ekaitza zan, gero bare-bare. Eta gorrotorik edo ikusi-ezinik zer zan ere ez ekian. D. Claudio kultura andikoa zan, jakituna gai askotan. Dotoretza bi eukazan:

Teologian. Asko irakurten eban; baina batez ere irakurten ekian, eta irakurten ebana gogoan geratzen jakon. D. Claudio biotz zabal eta esku zabal ere bazan. Ori dala-ta diru asko ekarten eutsoen Bilboko aberatsak pobreentzat eta berak arenak eta geiago zabaltzen ebazan. Pobreak tratetan ekian. Itzalak esaten eutsezan baina samurrez, maitasunez: "D. Claudio tengo hambre"

eskua luzatorik esan eutsan bein nire aurrean eskeko batek. "¿Hambre?" —erantzun eutsan— ¡Lo que tú tienes es sed!". Ardao usaina ekarran gizajoak. Alan eta ere eskupeko barik ez eban inor bialtzen. A langoxea zan D. Claudio.

—Gauza bat itzi dozu ezan barik: balientea zala.

—Aor, ba! Ez da ori orrelan. Jendeak orixe uste eban, balientea zala... Baina ez da ori egia. D. Claudio bildurtia zan. Au entzunaz badakit jende asko arrituko dala, baina jakinez dinot ori: bildunia zan. Eta ejemplu asko kontatuko neukez. Ortxe dago, ba, D. Claudio-ren meriturik andiena: izatez bildurtia izanik bera izan zala abade bakarra Hego Euzkadi osoan, Franco-ren aldirik txarrenean, egi biribilak, gogorrenak, ausartienak, esateko. Buruz argia zalako ikusi egiten eban zorrotz injustizia asko, biotz andikoa zalako sentidu egiten eban sakon, eta abade zintzoa zalako esan egiten ebazan pulpitoan. Eta gero, pulpitotik jatsita, eskuak eroaten ebazan burura... ikaratuta. Eta gauzez ez eban lorik egiten urduri eta artega. Berari entzundakoa dakit. D. Claudio ikaratu egiten zan asko eta urduri jarri. Itxuraz ez zan olangoa baina barrutik ezagutu dogunok olangoa zala badakigu. Jende asko oker egon da D. Claudio-gaz, aren garraisiak entzunda... Baina D. Claudio-ren garraisiak bere bildurak isilduerazoteko bakarrik ziran, bilduni baten garraisiak. Bildunia izanik, ba, balientea izan zan injustiziaren aurrean.

—Baten batzuk baldartzat euki dabe D. Claudio...

—D. Claudio, kanpotik, 'esakeretan, beti fina izan ez bada ere barrutik oso guria izan da. Gogoan euki bear da zelango giroa egoan S. Anton inguruan D. Claudio-ren denporan. Parroki pobrea zan eta zoritxarrez premiaz batera ez jakina Joan oi da. Alango jendeaz fintasunak aide batean itzi bear ziran.

Bein D. Claudio eleizpeko burdinezko sarean oratuta gugaz berbetan ziarduala ijito mutil koskor bat urreratu jakon. Eta alango baten eskua D. Claudio-ren tripara eroanik auxe dinotso: Claudio, ¿qué tiene Ud. ahí?': D. Claudio-ren erantzuna: "¡Mierda!": Gero, aren barre algarak! Errietako sermoietan batzutan andiak botatzen ebazan, baina gatzaz. Nire, Meza barrian sermoi oso fina eta goi mailako egin eustan.

—Asieran, ibilaldi asko egin zenduela alkarregaz esan dozu. Nondik nora?

—*Ene! Luzea litzateke dana esatea...*

Hego Euskalerra barruan, asko baita Espainian ere. Gero, Frantziara, Ingalaterra-ra, Belgika-ra, Italia-ra... Gero Ameriketa-ra, Venezuelan bere lekaiheen etxe bat sortzera.... Colombia-ra. Geroago, Jesukristo-ren lurraldeetara: Israel, Jordania, Siria, Libano, Turkia, Ejipto... Ibilal-

di oneetan jazoriko asko ditut neure gomutan kontagarriak baina gaur, emen, ezin geiago.

—Amaitzeko?

—*Amaitzeko auxe; eskerrak zor deusadaz Jaungoikoari gizon andi au ezagutu nebalako, abade zintzoa, euskerazale eta abertzale andia; buruz argia, biotzez ona eta esku-zabala.*



D. Klaudio'k benetan maite eban euskalerra.



GALLASTEGI'TAR KAULDI

Gaurko idazpuru au dauala idatzi neban idazlantxu samin bat ZER onetan, 1987'gko. Lotazilla'n, ordurako gaixorik oso txarto ikusi nebalako, bera ikustera Gortiz'era joan nintzan egun baten. Ain makal iduritu yatan eta orretaraxe izan zan, bada, nire idazlantxua argitaldu baiño egun batzuk lenago eruan euskun Jainkoak bere aldamenera. Eta BERE aldamenera esan dogu eta orretara uste dogu, bada, gurearteko iñor ba'dago Urtzi Deuna'ren aldamenian, On Kauldi izango dalakoan gagoz bat, beti ta bildur-barik egixa esaten eta aldeztutzen jakin ebalako. Zein euzkotar eta batez bere euzkaldunek ez eban ezagutzen On Klaudio?

Ara zelan ezagutu neban apaiz jatorra baizen euzkaldun benetakoa:

Francotarren agintza zital eraikorrak ziran, baiña, berak bere biotz-barrenan eroian zuzutza zapalduten ebixala ikusirik, bere eleztar txiroen biziera errukarria ezagutu ondoren, asi zan bere kemen guztiaz eta beste gitxilako abots indartsu ta zoliaz bere eleiz-barrutian naiz beste edozein eleizatan egi-egia aldeztuten... Eta, egun baten gure erriko txadonara, parrokira ekarri eben eta, gu be bertan izan gintzazan bere abots ederrakin esaten euskuzan azalpenak entzuten. Ordutik geiago sarritan izan gintzazan Bilbo'ko Andoni deunaren txadon aundi aretan, baiña batez be euzkeraz meza ospatzen asi zanik geiago, bada, egi-egia esan, gure izkuntzak, EUZKERAK barriz eleizaratu euskun lako, "diktadura"zatar arek pizka bat baiño geiago aldenduta euki ondoren.

Igande eberdate baten Atxuri'n bultzitik jatsita "San Antonera" noiala on Kauldirekin asi nintzan izketan, egunon esan ondoren eta, izketan goiazala laster esan eustan:

—Nunditarra zara zu?

Esan neutsan nunditaran nintzan eta, berak orduan:

—Ba zure erritarrak baiño obeto egiten dozu euzkeraz. Eta nik barriz ez dot zuk bestean ondo egiten baiña, aleginduten naz al dodan geien ikasten.

Orretara jardun gitzazan eleizarantza goiazela eta, bertara sartu baiño len esan eusten zelan ziran nire izen-abizenak eta, esan neutzanean. Altuna'tar Josu nintzala baiña, "Basa-jaun" izen-ordez be ezagutzen ninduela euzkal-idazleen artean, on entzunaz batera bezarkatu ninduan kalean bertan, esanaz:

—Baiña zu zara "Basa-jaun"?, ezin zintzake konturatu zelango poztasuna emon daustazun, bada, zeu zara bizkaieraz geien idatziten dozunetariko bat, jarraitu bide orretatik.

Eskerrik asko On Klaudio, esanaz banadu gintzazan, baiña ordutik geiago gainiatuaz joan gure adizkide-tasuna, ikusi nebalako ze gizon maitekorra zan bera. Nai-ta jaun jakituna, azkarra izan, oso bakana berak baiño gitxiago jakitunak geran onentzat.

Zein irakatsi bikaiña adierazi euskun On Kauldi'k, bai eleiz-gizon lez naiz euzkaltzale lez!

Bere eginkizuna guztiak izan ziran bere urreko bear-tua aldeztutzeko eta Aberria, Euzkadi benetan maite ebanez, euzkera zabaldu ta beren bitartez maitasuna ereiteko.

Goyan Bego Gallastegi'tar Kauldi euzkotar euzkalduna, beste gitxi lako zintzoa.

ALTUNA'tar JOSU



Irakurle!

Ezagutzen dozu gure egutegia?
Egunero orritxu bat eskintzen dautsu.
Bizkai'ko euskeraz, euskera garbiz.
Aurrean, iru edo lau urteagarren.
Atzean, gai jakingarri asko.
Eta duban emoten jatzu... artu egizu.
Non?
Bizkai'ko Aurrezki-Kutxaren idaztetxe guztietan. Eskatu zeuk!
Edo Euskerazaleak Alkartean, Colon de Larreategi 14, 2.ª, eskoia.
Egutegi au Bizkai'ko Aurrezki-Kutxaren laguntzaz argitaratzen dabe EUSKERAZALEAK.
Oparia dozu.

Munduan bear-izanak asko izaten dira, batez be aldi batzutan, eta aldi beratan agertzen dira laguntzailleak be. Don Klaudio bear-izan aundien aldian bizi izan zan eta baita laguntzaille ona izan be.

Asko urreratzen ziran beragana estualdi larrietan eta gose gorrian bizi zirala eta beti aurkitu eben bere laguntza.

* * *

Bitan izan neban nik D. Klaudio'gana laguntza-billa joan-bearra. Urreratze biak izan eben erantzuna edes-tuko dot.

Ubide'n nengoan ni aldi aretan, abade egin-barri. Erri txiki aretan orduan iru edo lau milla langille egozan, Zadorra-Ur-Jauziak gertatzen.

Langilleen sendiko bat, amalau urteko mutikoa, urreratu jatan eta abade izateko guraria agertu. Santos Sanchez Lopez de Sabando zan bere izena.

Mutil jatorra zan eta abade izateko gogo bizia agertzen eban, baiña, jakiña, ez eukan ikasketak ordaintzeko dirurik eta orrek neke aundia emoten eutsan mutillari.

Begoña'ko Eleizara urreratu nintzan, Zeruko Amari argitasuna ta laguntza eskatzen eta antxe etorri jatan burura: D. Klaudio'k daki Bilbo'n nortzuk diran dirudinak eta laguntzen zaleak, zoaz beragana eta itaundu.

Eta ara joan nintzan, baita D. Klaudio aurkitu be. Asikera berba gogorak esan eustazan kanpotik etorten diranen aurka, baiña nik esan neutson: Arantza artean izaten dira lore ederrak be.

Arin aldatu zan bere aurpegia eta esan eustan: Zer esan nai dozu?

Eta nik: Ara, D. Klaudio, gaztetxu bat daukat abade izan nai dauana eta ez dauka nondik ordaindurik. Zuk ba-dakizu nok ordaindu leikion?

Eta berak: Bai, bat baiño geiago, baiña laguntza asko emoten dabe eta geiago ezin eskatu. Dana dala, neuk ordainduko dodaz mutil orren ikasketak.

Eta orrelantxe egin eban. Aundia izan zan nire poza eta aundiagoa abade —gai izateko egoan mutil arena.

* * *

Beste bein, arako abadeen eta Gotzaiñaren arteko aldi larrietan, Derio'ko abade-gai-etxean sartuta arazoai erantzuna emoten geuntsen aldi aretan, barruan egozan abadeak mezea esateko be baimen barik egozala, D. Klaudio'ri eskatu geuntson meza bat emotera etorri zeitela.

Arriskugarri zan orduan beretzat be on egitea, Gotzaiñaren asarrea sortzeko bidea zalako, baiña D. Klaudio etorri egin jakun eta Semonarioan bertan meza beroa ta gogotsua egin genduan bera meza-emoille genduala. Ez jat sekula aitzuko ordu aretako giroa D. Klaudio'ren ontasuna!

* * *

Ez dira zeruko santuak lurrekoen eskariak entzuten dabezan bakarrak. Lurrean bertan be izaten dira santu laguntzailleak eta olako bat genduan gure D. Klaudio: Biotz aundikoa, laguntzaillea, ulertzen ona.

(GAMIZ)

IPUIN-SARIKETA

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurtan be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuinak asmaurikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeerea iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

— Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKAR ARTE LUZATZEN DA. TEA'ren etxean (Bilbo'ko Colon de Larreategi

14.2.^a, eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterrelean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.

— Sariak lau izango dira:

1.^a 40.000 pezeta.

2." 30.000 pezeta.

3." 20.000 pezeta.

4." 10.000 pezeta.

— Ipuinak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

OARRA: EPEA ABENDUAREN AZKENERA-

EUSKERAZALEAK

ON KLAUDIO GALLASTEGI, OLERKARI

Betiko lez da, gizaldiak zear, errian izan diran giza-seme aundiak gogora ekarri ta gorespenak egiñik aintzatzea. On Klaudio, geure egunotako aundia, ezta aaztua izango; artuko dau merezi daunari zer jakona. Egun batzuk dirala, San Anton eleizan, bera 40 urtean txauburu izan zan eleizan, bertako ta kanpoko ainbat eleiztar agintariakaz batean bertan zirala, apaiz jakintsu ta arimazaleari omenaldi maitekorra egin jakon.

Gertaera on ospatzean, Goi-Zubi kultur Alkartea ta San Anton orfeoia esku arturik, Juan Mari Uriarte gotzain ordeak, beste zazpi apaizek lagunduta, Eukaristia ospatu eban, itzaldian On Klaudioogan doai bi batez be nabarmenduaz: egi-zaletasuna eta urkoeganako maitetasun beroa. Meza ostean, agintariak eta erria elizpean, omenezko arrureskua egindakoan, Jose Mari Gorordo Bilboko alkateak, Jose Berlaf ek osoturiko irudia agertazo eban bilbotar guztien izenean. Bere itzak: "On Klaudiok bizi izaten jakin eban eriotzararte; bere burua eskintzen eta lan egiten". Eredu bikain bilbotar guztientzat.

Ogetamar urte gitxienez dira nik On Klaudio abadea ezagutu nebala. Abertzaleen mezaren baten, ziur asko. Geroztik, Bilbora joan oi nintzanetan, beti ezta be, astia neukanean, ikustaldi labur bat egiten neutson. Atxuri'ra orduko, atsegin jatan San Anton'go sakristian apaiz maitekor ari eskuak estutzea. Txeraz eta umore galantez artu oi ninduan beti. Euskal-lana zen gure geieneko autu-gaia: Jon Gotzon Etxebarria, olerkari ta irakasle zanak eta gaur be danak, antxe eukan bere liburuxkat antolatzeke tokia. Atsegiña zan aren izketal-dia, sekula amaitu eziña.

Geroago "Karmel"-erako eta "Olerti"-rako lantxoak bialtzen asi jatan, polito idatzita. Karmeldar aldizkari bi oneitan, eta "Zer"-en datoz On Klaudio'ren euskal lanak prosazkoak eta poesizkoak. Parrokiak asko lotzen ebe-larik be, artzen ebazan asti-uneak bere barruari, lumaz ekiñik, nasai-aldi bat emoteko.

Berebillaren antzean edo, eder jaku izan be barrua noizik-bein asazkaldi batez gozatzea. Ar-emon larría eskatzen jaku. Aitaren odola dakar semeak, eta ezin ukorik egin odolari, nobere buruarentzat kaltegarri litzaketa. Zoaz aurrerago ta ikus egizu: eleiz-gizon zara ta "erlejiño ta artearen artean" ez ete dogu berezko kate-

-ari bat? Begira barrura, begira atera ta ikus. Barruz, eder-sortzaille ez ete zaitugu? Eta kanpo-aldetik, nainora so, ederrez blei-blei daukazu guztia. Begira, artista ez ete zarean... Ba al dakizu barru-kemenez ederra sortzen? Eta, bardin, inguruan dozun Jainkoak begituz ixuria jasoten? Bear bada ba-dakizu; orduan artista zara, ez izan ezpairik.

Eder-zale genduan On Klaudio. Zeregiñez gaiñezka aurkitzen zan parrokian eta gizartean... Ara ta ona, eder-billa beti, arima zaintzen, meza emoten, autor-tzen, irakasten; arimen on billa, grazia ereiten, itzez eta egitez onaren billa, eder billa. "Gorago!" iñoan aspertu barik, an eta emen ezkutu billa, espiritu atzetik, Jainkoaren billa, edertasunaren aurkiraiño eldu nairik.

Eta On Klaudio'k, ondoren, olerkiak eiote zitun, estrofa gartsuetan bere anima ona jarioka itxirik. Ari-mearen dardara dozu olerkia, adimenak eta biotzak opildua, barruko eragin samur gozoa, goizeko eguzkiak intz leuna ikutuz sentidu oi dauan poz-ñirñir ezkutu baizen xarmanta. Eta kanpokoa? Mundu atsegin zoragarri batez esiturik bizi arren, zenbat dira gizartean —miñetan diñot— mundu ortaz tautik ez dakienak. Lotsagarria egiaz. Eta Gurutzeko Juan deuna, Karmeldarra, zoratu ibilli oi zan aran eta ibarrak zear, Jainkoaren arnasa, lorratza ta bizitasuna antxe ikusi ta aurkitzen ebazalako. Mendia, itxas-egala, etxe bat, pertsona bat... Eta oneik ez dautzu ezer esaten? Zoaz eskolara ta ikasi... Zer gero? Zeure kautan eta ingurumari dirdaika daukazun "ederra".

Ikasi egizu, bai, ederra sortzen, ederra jasoten. Irakur ondorengo estrofa ta aapaldiok. Adi ta ikus zein zorrotz eta begiko adierazo daroan izadiko edertasuna. Artagan aldera joan da, Begoña'tik gora, goiz-berandu; maiatza aukeratu dau ibiltaldi bat egiteko: lore ilia, zuri ta urdin agertzen dira inguruak, lilluragarri. Aurrez aurre dau ikuspegi zabal bikaiña, Bolueta, Basauri, Galdako ezkerretik; eskumara biurtuz, Bilbo, Deustu, Barakaldo, ur eta urrin; mendiak berdetuz, Pagasarri ta urriñago-koak, aundi ta txiki, konta-ezin alean.

Goratzago doa. Larra edatua ta ardiak bertan, tanta zuriak iduri. Or umetxo bat be, amagandik aldendua, bildots txiki bategaz olgetan. Zuri-zuria da bildotsa, eta triskalari dabil aurtxoaren biran maitekor. Barrua oso

zerbeldu jako olerkariari eta luma arturik, onela dau kanatzen:

"Lore il, argi-argi aurtengo lore il,
zelaiak urdin zuri begi atsegiñak;
bost urtedun umea, erruge garbia
zelai erdian dago, begiak urdiñak.

Bere inguru bildotsa zuri-zuri polit
triskalari ariña, da, pozez beterik;
umetxoarengana doa geldi-geldi:
errugea dalako ez dauka bildurrik."

Umetxoak musukatu dau bildotsa, ta onek, bere aldetik, umetxoa igurtzi miintxoaz, maite-txera zelan-bait erakutsiaz. Olerkariak bertatik:

"Beriala bi orreik biur dira lagun,
izketan asi dira, or zelan ikusi."

Ziur, oar alkarri dautsoen maite-miña. Jardun txan-beliñean darrai olerkariak:

"Umeak dirautsola: `Zein polita zaren!'
Bildotsak erantzuten, esanagaz 'be, be'..."

Umeak ondorengo: 'Amarik ba-dozu?'
—'Nik ba-dot ama ona, asko ni nau maite.'
Uste dau umetxoak bildots zuri-zurik
dakiala izketan, diñolako 'be, be...'
—'Or dator nire ama, ogi zurigaz:
emongo dautsut ataltxo bat zuri bere."

Asitakotik jarraituz poetak beste bertso batzuk ariltzen daukuz. Umea ta bildotsa zelai bat-berean, "erruge diranak lagun bereala" egiñik. Esakun zorrotza, adiñekoentzat:

"Ori da bide zuen nagusientzako,
biotz zintzoko izan, bakez biziteko."

Lurra obetu ta gaizkatu guraz gabiltz, esanez beintzat gogotsu. Miiñagaz on diñogu danok etxean eta kalean. Izan gaitez, bai, errubako ta zintzo. Or bide bakarra erria loturik dauken kateak eteteko.

Ots: jakin dagigun bizi izaten; iñoren onerako geure burua eskintzen, eta lan egiñez geure erria edertzen.

AITA ONAINDIA


ZER

ALDIZKARIA

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

ARPIDETU ZAITE!

ZER
EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14- 2.º - BILBAO-1

EGI BIDETIK (D. Klaudio)

ATXURI

Aspaldi ez naz Atxuri'ko tren geltokitik igaro. Len, gaur baiño bide nausiak kaskarrago eta neketsuago egozanetan, ba genkien trenez ibilten. Alaz eta eguna bear Ondarroa'tik Bilbo'ra ostera egiten. Goizeko zazpiretan kotxean Deba'ra, gero an trenean sartu eta ia amaikak eta erdietan elduten giñan Bilbao'ra. Dana dala, eginda gengoan artara. Nekearen ordezt Bilbon bazkaltzeko aitzakia artzen gendun. Aitzaki-maitzaki, ala egin bear, bazkal osterarte biurtzeko aukerarik be ez gendulako.

Arratsaldean barriro Atxuri'ko geltokian beste egotaldi luze bat txartela artzeko.

Bi-iru leiotilla zabalik egoten ziran geltokian. Ibiltari erreskada luzeak erosteko zain. Eta askotan, leiotillan atzean, gizon berbera, bakarra, billeteak emoteko. Iru-lau "terzera"koak emon eta bera aldatzen zan "prime-ra"koetara, erreskada arindu naian.

Gu, ormaetara begira, gogaituta eta zutunik egoten erdi etenda; baiña beti zerbait ikasten dan lez, gogoan daukat geltoki aretan, erdi-erdian, irudi baten azpian, alako idazkun zorrotz eta adierazgarri bat egoela erraz irakurteko eran: "Egijak azkatuko zaitube".

SAN ANTON'GO ABADEA

Tren geltokitik ez da asko ibili bear beste geltoki batera eldu ta urreratzeko. Oraingotan fedearen geltokira. Eta an, Bilbo'ko armariari itxura emon eta nortasunez eta kondairaz beteten dauan Anton deuna izeneko eleiza, parrokoa.

Entzuna daukat ba-dirala abadeak pulpitoari benetako bildurra dautsenak. Nai eta gizon arteko eta gizon argi eta jakintsu izan.

On Manuel Lekuona bat jakintsu eta etorri oneko izan zan, erakusten oitua, baiña... Bein, abade egin-barri, Bergara'ko parroki baten bere itzaldiko aria galdu, eta etenda geratu ei zan, eta geiago ez ei eban nai izaten kuartillak eroan barik pulpitora igo.

On Klaudio Gallastegi be, entzuna daukadanez, soiñez eta buruz benetan andi eta jakintsu izanarren, lotsakor eta bildurri agertzen ei zan bere lenengo aldietan. Pulpitora igo baiño naiago beste edozer egin.

Baiña San Anton'era bialdu eben, eta parroko lez, edo eleiz-abadeen buru lez, eta an ezin eikean ixilik egon. Euskalerrriaren eta bertako giroa ikusita, ezin eikean erdika ibili be. Lotsak kendu eta adoretu zan. **Ba** ekian



egia esan bearreko giroan bizi zala, argibide eta jakin-garri lez, egi eske egoala erria. Eta ba ekian egiak min emongo ebala sail batzuetan. Baiña zauria osatzeko min emon bear izaten da. Zauria garbitu bear izaten da, lotugarri zar eta pozoitsuak kendu eta barriztu.

* * *

ELEIZEA TA AGINTARIAK

Osatu bearreko bi eukazan berak: erria, au da, bere eleiztarrak, argi eske eta illunpean bizi ziranak, naigabetan erdi-etsita egozanak, eta alderdi aizetsua, koipe-tsua, alderdi ofiziala, batez be era bateko edo besteko agintaritzta eta ogibide bateri lotuta bizi zana.

Kontzientziko gai lez artu eban Barri Ona zeatz azaltzea. Ez gai bateri laino artean lez ikutu, bestea bastertu edo ta urrengoa eskutatuta, eta aintza eta gorapeneko atalak bakarrik erabilita.

Ba ekian diktaduretako aldietan zelako arriskuak egoten diran orrelako erakusleentzat: Ba ekian baita etxe berberereko "gurasoetan" zelako zotiña eragingo eben orrelako irakatsi ausartak, batez be, edozeren gaiñetik, oker txikiagoaren aitzakiz, giro epel baten jokatzera egin edo oituak egozanetan. Doiño erdi bakarrik abotsa igotea naiko ta geiegi zan areik zurbilduta lagateko.

* * *

EGIA ASKATZAILLE

On Klaudio "txakurtu" zan. Alaxe esaten dogu euskaldunok: txakurtu zaunka egitera gertu. Bere etxea, bere parrokia zaintzeko lenengo. Adoretu zan. Atzera begiratu eta ba ekian zer eukan: espetxea, isunak, goikoen asarre eta aize brastadak, etxez edo parrokiz aldatzea... Eta ixil egonda, zer?

Gizonak bere egoera aztertzen dauanean, edozetara egiten da. Zintzotasunak adoretu egiten dau, fedeak argitu eta biztu, lanak lotu eta eginbearra beteteak menperatu. Zenbat gauza ikusten doguz gure bizitzan, aurrez begiratuta eziñak ziralakoan itxiko genduzanak, eta gero ezelako atzerapen barik, trauma barik aurrera eroan, bete edo gaillendu eta burutu doguzanak?

Baiña orretarako elburu jator bat bear da. Norbere sinistetan eta norbere zeregiñean baikortasun eta gar berezi bat.

Orretan, on Klaudio, atxuritarra izan zan.

"Egijak azkatuko zaitube", geltokikoa, bere asmo eta elburutzat artu eban. Ez eban urtengo ortik. Bere esaerak, aginduak, oarrak, argibideak, batzuntzat salakuntza ziran, baiña or egoan bere erantzuna. Ez al dira egi. Ez al dira eleiz irakaspen edo ta ez al dira giza-lege? Ez al dira gaiñera goi-egi?

"Egijak azkatuko zaitube"...

* * *

SENDOTASUNA

Or sendotu zan Gallastegi jauna. Bera sendotu eta bere eleiztarrak eta beste asko sendatu.

Ez zan izan bera "eremuan deadarka ebillan abots galdua". Erri aurrera agertzen zan, arpegi emoten ikasi eban. Eta jakiña, zotin eragin eban. Kontzientzi asko zirikatu eta miñez geratzen diran txakurrak lez, barruko asarre eta orrutan ibiliarren, atzera egin bearrez ipini, bitarteko baten makilla aidean ikusten dabelako.

Makilla on jainkotiar agindu eta giza-eskubideen egia zan. Kristau eta abertzale erri baten egia. Maitasunean oiñarritzen dan egi soilla. On Klaudio'ren arma bakarra.

AUGUSTIN ZUBIKARAI



ABOTS-BAKOEN ABOTSA

EZAGUTU

Ezagutu, espalditik Negurin etab. egindako sermoinen entzutez, Getxo aldean bizi giñanetik ezagutzen neban Don Klaudio. Ezagutu ber-bera, ikusiz eta "bere saltsan", Elorrio bere jaioterriko elizan egin neban. Berrio Otxoa egun baten, Durangotik joan nintzanean. Gure martiriaren Meza Nagusian, "Meza barri" bat ospatzen zala aurkitu nintzan eta Don Klaudio sermogille. Meza entzule, antxe, Balendinen aldarearen aurrenengo aulkietan, Riestra, ainbat urtetan Bizkaiko gobernadore zana. Morcillo gotzainaren azken urteetan edo Gurpideren lenengoetan izango zan. Gure Don Klaudiok, Meza barridunari aolkuak emon eutsozan, abadeak zelangoa izan bear dauan esanaz. Bera, 1931, Errepublika urtean abade egiña, Don Mateo Mujika gotzaiñak berari esandakoa: abadeak, Egiaren aldeztzaile izan bear dauala. Eta Don Klaudio, antxe ibili zan bere abots ikaragarriaz deadarka:

—"El sacerdote debe ser el defensor de la Verdad: ¡guste o no guste! Azkenean, sendo ta astiro, auxe esan eban:

"Ahora voy a hablar en vascuence, nuestra lengua vernácula admirada por los sabios del mundo entero y estimada por las personas inteligentes". (Au, neuretzako da! esango eban Riestrak). Eta an jarraitu eban sermoia euskeraz, len baño be sutuago, Egia on zala ta deadarka, bero-bero eginda. (Urteak barru, Franco-aldia amaitu ta gero, Don Klaudiori Riestraren aurrean berak esandakoa aipatu neustanean, barreka esan eustan:

—Riestra, nire Iagun aundia zan.

* * *

BARRE-ERAGILLE

Gero, aurrez-aurre, berbetan Don Klaudio ezagutzea, ba-leiteke "Kil-Kili"ren eskursiño aretan izan izatea. "Minimorris"txoan bera bakarrik, kajoi baten barruan sartuta lez zirudianean... Guztion pozaz, batek argazkia atara eutsan! Laster, gure poza, posura! argazkiak urten ez!

Don Klaudioren barrea, entzutekoa ta entzungarria! Eta bere umorea, bere buruaren Iepotik barre egiteraiñokoa. Don Klaudiok miresten zituanak be, bere bizkar goratzen ekian. Olan, bere ikaskide ta Iagun aundi eban Don Jose Arbeotzaz:

¡Comø le haría Dios a Arbeo tan sabio y a mi tan bruto!
—esaten ei eban.

Baina berak olangoak esan arren, berejakituri berezia eban: Jaungoikozko jakituria, erri jakintzan, ikastaroetan eta eta bere eleiz-artzaintzan sendo mamindua. Ortik etorkion txiki ta aundiekin artuemonetan, diplomatziaz batzuetan eta zuzen, plaustadaka bestetan bete bizitzan bete eban zeregiña. Baita ortik zear zabaldu diran bere egite eta esakera "mortalak" be. Olan, San Antongo bere eleiztarrai esana:

—Enetxo biotzekook, nekatuta nago ezkontzak irunan-irunan egiten; arren, biñan-biñan etorri zaitze!

* * *

BEROA

"Kill Kili"tarrakin gurean izan genduan baten, auxe kontau euskun: Fatima bidean edo, lekuren baten, kardenala zala edo zabaldu-

ON KLAUDIO GALLASTEGI

ABADEA
SAN ANTONG^o PARROKOA
1938-1988



rik, jendeak bere aurrean makurtzen jakozala ta, berak onetsi egiten zituala:

—Zergaitik ez nituan ba onetsiko? —Moan berak.

Miren Itziar gure lengusiña, Berrizko Merzedaria, Eliz barrutiko Misiñoetan, Ekuadoren il zanean, illeta Mezea San Antonen egin eutsoen. Neguko illuntzi otz-otz aretako berotasun bakarra, Don Klaudio zan: entzuleok otzaz dar-darka gengozala, bera, sua eriola, pozik ibili jakun Itziar Belaustegigoitia eta Azkue goratzen jo ta ke, izen-abizenak esan-da-esan, gora ta beera, Euskalerraren eredu jarriaz. Gero, batek esan ebanez, "gu leituta gengozala, berak zapiagaz izerdia kendu ta kendu egiten izan dau!..."

* * *

Aberri Egun baten izan zan: San Mamesera goizean joan giñanez, San Antongo euskal Mezara joatea erabagi gendun: axe bai Don Klaudioren sermoia! Alegindu zan bai, gure biotzak Kristogaz berbizen; Kristin-en Berbizkundera gure aberri txikian sartzan, bizia emoten, Aberri Aundian sartzeko gai izan eiten. Gero, guraña onespen! Guztiz biztuta urten gendun.

Alango baten, jakin barik nik ezer, Don Klaudiori irratitik sekulako alkarrizketa egiten entzun neban. Ni; pozik entzuten eta batera arrituta egiten neban:

—Ondo mantsotuta erantzuten dau Don Klaudiok! Esan bear dausat berari! —Orretarako bearrik ez zan izan; orduntxe laster jakin neban Don Klaudioren gaixotasunean barri

Don Klaudioren Gurutzak, urteak iraun ebazan. Eta Gurutzetik be, bere Maixuari jarraituaz ikasbide onik emon euskun.

"Abots bakoen abots" izanik artutako erasoak ez eben ainbeste mindu. Ostera, ustebako erasoek bere biotz erraldoi samurra, barruragotik mindu eben. Eta Kristok lez, Golgota baiño lez Getzemani ekarri. Eta "egin bedi zure naiia" egiñaz, Berbizkundera, Aberri Aundira eldu zala uste dogu: siñisten dogu!

MAITENA BELAUSTEGIGOITIA

"BERBA EGITERIK EZ EBENEN BERBEA"



MEZEA

On Klaudio Gallastegi'ren irudiaren azpian irakurten dogu idazpuru ori. Orain Jainkoaren zorionean dagon abade ona, arimen artzain arduratsua. Bere eleiztarrek egin deutsoe oroi-tarri ori. Urrillaren 6'an, On Klaudio'ren omenez San Anton Eleiza ederrean, eleizkizun andia egin genduan.

Bere illetan, orain urtebete egon nintzan lez, Meza erabatekoa esaten. Orduan Gotzain Larrea'tar Luis Mari izan zan lez oraingoan Uriarte'tar Juan Mari Gotzain Laguntzaille izan dira buru. Beragaz amar amabiren bat Mezakide gintzazan. Zergaitik —esango deustazue— ain gitxi jakiñez bere illeta-eleizkizunean batu giñeala berrogeiren bat Eukaristia batera ospatzeko? Domekea zalata abadeak euren berarizko eginbeartetan ebiltzazan.

Meza, jakiña, dana euskeraz, igande guztietan izaten dan lez. San Anton'go abesbatzak andra-gizon bietariko abotzaz eratuak, Meza-sarrera gozatuz abestu eban.

Gotzain Uriarte jaunak egin eban zazpi-amar minutuan Ebanjelioaren atzalpena. On Klaudio'ri buruz berbalditxu orren azkenean esan eban zerbait, eta erderaz be itz batzuk egin. Atzeanengoan eta ez neutson entzuten ondo.

* * *

OTOITZ ETA KANTU

Eukaristi egillekide banakak izan arren, eleizea erritarrez bete-beterik egoan.

Gure Aldundegi'ko Buruzagi Pradera arpegi alaietz an agertu jakun, ta Bilbo'ko Alkatea Gorordo Jauna ez ain pozik;

arduraren bat eukiko eban bearbada. Izparringiak barri emoterik be ez. Ez zan etorri Ardanza Lendakaria; Ianpetuta egongo zan, osterantzean, onelango jasoeretan ez dau utsik egiten.

Eleizara Mezea entzuten etorri zirean askok Geure Jauna artu eben, Mezaren Jauna artzeko aldian sei abade ziarduen erdi ta albobietatik zeruko Ogia bananduten. Bitartean, errian ain ezagun dan abesti au "Ogi Zerutik" abestu zan. Gero, eleizako Abesbatzak andra ta gizonez osotuak eresi egoki eder bat erti osoz, ganoraz, abestu eskun lau abotsetara.

* * *

OMENALDIA

Mezea amaiturik, Bilbo'ko Alkateak Gallastegi'tar Klaudio'ren irudia bilbotar zizelkari joxe Borla'fen egintza dana, Bilbo Uriak emoniko begirune bizi, bear egin ta neke ugari eroaten jakin ebanarentzat agertu eban.

Ondoren, Algorta'ko mutil bizkorra dan Asier Bilbao'k, Bilbo Udala'ren eres-taldeko txistulariek euren soñuz lagunduten eutsoela dantzatu eban.

Orain Parroko dan Olabarria'tar Anastasio'k San Antonen bere aurreragokoa izanari buruz auxe esan euskun: "On Klaudio esanaz, dana esanda dago. Euskalerrit'ik zear igaro zan abaderik andiena ta entzutentsuena izan da".

* * *

ZAPALDUEN ALDE

Aurreko egunetan izparingietan idatzi eban berak Olabarria'k On Klaudio'ri buruz idaz-lan bat irudi azpiko burnizaflanean irakurten dan esaerea: "berba egiterik ez ebenen berbea" azalduz:

Franko'ren Jauntzargoak Euskal Erria aurrean erabilten ta emengo norki askori okerkeriak egiten eutsezan.

Oneik ez eben egiten barbarik ezekielako edota euren abotsa iñok ez ebalako entzuten.

Orra or guzti onein aide, Jesukristo Berak egingo eban Iez, gure On Klaudio'k arpegia emonda kementsu bere abots errazoiz beteriko indartsua erabilten eban. Augaitik, diru-nekea sarritan ezarten eutsoenak, jaramonik bez, berekautan esanda: "Gura baiok etorrikozak ni espexera sartuteko". Ez bakarrik Euskaldunen alde, Euskadi'ra torten ziran ta bertan egozan atzeritarren aide erabilten eban bere abots zaratatsua ta bere arpegia agertu be, bere kristiñau maitasunak ez eukan mugarik eta.

LETONAK



Benetan arrigarria Aita Onaindia'k euskal-elederrean egin izan dauan lana. Bere lan jator eta itzulpenak, larogetaz liburu ba-ditu argitaratuak eta orain, laureun eta irurogeta sei orriko beste landara mardul bateaz ornidu dausku euskal-elertiarean baratza.

Oraingoan, bere bizitzeari izan dituan jazoera, auzi-orrazi, gora-beera, pozkida eta alaitasunak azaltzen dauskuz umetan asi, gaztaroen jarrailu eta bere bizitzako bide luzeak-zear, berak ibilli daroan euskera erre, gozatsu, mardul eta ugarian.

Euskal-elertiarean arloan berezitasunez aittetu eta goratu bearrekorik baldin ba'da, auxe, Karmeldar olerkari eta idazle nekagaitz auxe dogu besteakandik berezi bearrekoa.

Gazte-gaztetan asi eta orainarte, beti ekin izan dautso euskera landu eta sendatzeari, bai bere-bere ta bai itzulpen-lan ederrak egiten geure berbetearan onerako ta elederraren pizkunderako.

Gure Karmeldar zintzo onentzat euskereak ez dauko ezertariko ezkuturik eta gogamen-askatasun osoaz idatzi izan ditu bere liburu ta aldizkarietan argitaratu dauskuzan idazlan-jakingarri ta ugariak, Bizkai'ko euskeraz ondoz zein Gipuzkoa'ko erri-izkera ugarian.

Prailletzako bere egin-bear ugarietatik landa, ain maite dauan euskerearen indarbarritze ta sendagarritza-lanean emon izan ditu bere asti-une guztiak eta pozik, arduratsu eta eten bagarik emon be, nagitasunari ta itxitasunari egundo lekurik emon barik.

Euskera erre, gozatsu, mardul eta ugarian diñot asikeran eta olantxe da izan bere: Itzez ugari, aditz-arabilkeraz zigur, esakeraz jator eta joskera sentzunezkoz, zuzen, erriko ta ulerterrezez. Onen idatzietan ezin aurkitu daiteke ulertzeko eragozpenik iñungo euskaldunek, benetako erriar jatorren

espanetatik urtetan dauan euskera ber-bere, ondo ulertzeko eran garbiturik eta landurik eskintzen dausku-ta: Bere-berea dauan idazkera jatorraren jabe dogu, ba, au, Larra'ko lekaide ta idazle aittetugarri au. Itzultzailea be gitxi-gitxi langoa berau: Maixutasunez itzuli izan dauskuz, ba, Munduko literaturan entzute andiko direan libururik gaxenak bere: Homer'en Odissea, Dante'ren Jainko-Antzerkia, Goethe'ren Paust, Terese Deunaren Onbidea ta Egoitzak, *Kempis*, Birkili'ren idazlanak, Tagore'ren Poema batzuk eta abar.

Naiz-ta euskera eder eta apaiñez idatzi, gure artean ba-dira, zoritxarrez, alderdikeriak ikusmena lausotu ik, euren artekoan eztanaren ona ikusi ezin izaten dabenak; eta, etorri daitekean zentzunezko aize-boladeak jaurtiko dauan oiñari bagako etxea egiten teillatutik asita diarduenak. Olangoak eta Bizkai'ko euskera ederra baztertutik, idazkera lorriñez, gure izkuntzeari kalteak-kalte egiten diarduen egunkari ta aldizkariak be astintzen dauz, liburu barri onetan, goi-maillako gure idazleak.

Arbuigarria da izan be, gero, aldi nastetsu onetan euskaldunon artean jazoten dana. Lau-ziriko baten baliorik ez daben eta surtera jaurtitteko baiño gei ez tiran ganorabako liburutxu lorriñak, edoietaragiño jaso daroaz, euren aldekoenak baldin ba'dira, eta idazle ta olerkari bikaiñen lanak aittetu bere ez; eta al izanezkero, oinperatu. Kuntzekeria ta alderdikeria izan bear ete-ditu, ba, orain, idazleak, egiten dituan onuragarriak ontzat artzeko? Ez, gizonak, ez. Guk, geuk, *euskaldun* eta *fededun* diraugu eta zentzun gitxiko batzun destaiña ta arbuioak gora-bere, sendo ekingo dautsagu benetako erri-euskerea birrazkurtu, edertu eta geure elederra goirengo maillara jazoteari.

Oroi-Txinpartak dau izenburutzat Onaindia Aitak, oraingoan, agertu dauskun liburu ederrak. Jakingarri asko azaltzen dauskuz bertan; bere lekaide-bizitzakoak, guda-aldikoak, baitegietakoak eta abar. Idatzi au egoki-egokia dogu asti-aldietan lantzean atal bat irakurteko. Guda anker aretan ibillia baldin ba'zaitugu, irakurle, zeuk ariman eta aragian jasan izandako oiñaze ta naibagetasunak ugari aurkituko dozuz, liburu onetan, eta gudu-ostekoa baldin ba'zara, guda-aldiko odolezko bizikera negargarri ta naibagetsua zelangoa zatekean argi uler-tuko dozu. Espetxeetako bizikerea be jakingarria da toki zikin areitan egon izan eztanarentzat. Onaindia'tar Santi Karmeldar Aita lez gudan, izkillu-artean, atxillo-zelaietan eta espetxerik-espetxe ibillitakoak izan ezin azaldu daikez, ba, direan lez, aldi atako zoritxarreko bizikera negargarri baizen deitoragarriak.

Eskerrik asko, Aita Onaindia, begiko adiskide ori, bestek ez lez, zeure bear mamintsuakaz euskal-elederraren arlo elkorra ongarritzen zintzo ta nekagaitz diarduzu-ta.

Zeure-lekeide-eginbearrakaz batera geure elertia edertu ta azkortzen jairraitzeko adorea iraun bekizu, urte askotan, Jainkoak.

AURRE-APRAIZ'ek



Elur-maluta txuri biguñak
mara-mara
egazka datoz binbilinbolon
zerutik... Iurrera.

Ai ene biotz!
Laixter Gabon!
Badator Jesus...!
'Au zorion!

Bertso auek gernikar batenak doguz. Inazio Omae-
txebarria Martitegi'renak, urteburuko jazokizun gomu-
tagarrienaz: **BADATOR JESUS.**

Gaur-egun Jaungoirik-ezezko ustekizunak indartzen
ari diran arren, Gabonak ospatzeko zaletasuna ez da
galdu gure artean. Laster ikusiko doguz uriak batez be,
apainduta, zeru antzo dirdiratzen diran argi-dizpiltxo
begikorrez, ikusleatara edertasunezko alaitasuna eda-
tuz, berein margoz jantziriko denda ta ibilbide nagusie-
netan. Nire aldi edo denporako Gernika aldean **MARI-
JESIAK** kantatzen ziran bederatziruaren antzera. Arteaga'n
beintzat, lau edo bost mutil bardingozko taldeak izaten
ziran kale ta baserrietaraño etxez etxe, barri ona zabal-
tzeke prestatzen ziranak. Batzutan egutaro onakaz, bes-
tetan txarrakaz baiña, utsik egin bank bederatziru egunak
betetzen ebezen. Lau egunez **MARIJESIAK** beste lau,
KEBONITOENTZAT (Ze Ume Polita, Jesukristo, esa-
ten eban beste batzuk espaniarkeri orren ordez), ta
azkenengo egun bakarra izaten zan **BAIBELENAK** alai-
tsu, abestutzeke.

"Seintxu txiki polit bat
jaio da ball Belen'en,
aren albista emoten
gatoz gu gaur emen.

Bai, Belen'en
ta ball Belen'en
jaio da Jesus Nazaren.

Ta ainbat lauko abestu ondoren amaierakoa izaten
zan onako au:

Bederatzi gau onetan
egin dogu alegiñe,
orain biar genduke
errialtxu bat edo biñe.

Kristautasun eragiñezko Gabon abesti eder asko dan-
tuzkeguz munduko enda ta izkuntzetan ta, gure erri
euskaldunak be, bai aintziñako ta gaur-egungo Jesus'en
jaiotzari buruzko kantuz ondo ornidua dago. Urteko
ospakizun laztan, maitekorrena izan data da, oraindik
guraso ta seme-alabazko etxebarruko sendi-berotasunean.
Antziñatasunari dagokionez Joannes dogu aipatuena,
entzutetsuena, Baiona'n argitalduak 1630 gko. urtean
"Noelak eta beftze canta espiritual bereciac Jesus Chfis-
toren biciaren misterio principalen gañean. Eta sain-
duen ohorean besta buruetacotz".

Ona ba J. Etchebefi'ren neurtitz batzuk:

"Yaiki gaiten, k istauak,
Guziak oetarik,
El gaiten Elizarat
Boz eta alegerarik.

Aingeruen kantuek
Gaituzte gonbidatzen,
A tzainen maniuretek
Lotarik iratzarten.

Eman gaiten guziak
Lu ean belauniko.
Sortu den aurtxoari
Oore biurtzeko."

..... ta, abar. Geiegi ez luzatzeko gure ber-
bizkundeko Arana-Goiri-tar Sabin euzkera zuzpertzal-
learen **ARTZAÑAK** deritxon gabon abestiaren lerro
batzuk ezartzen doguz emen:

"Jaunaren geznariak
poz-geznea ekarri dausku
geure larre onetan
Jaun-Semia jaio bai-yaku.

Au da Jaun errukitsu,
ona ta Jaun maitagarria!
Bere maitasunak
eratsi dau aska batera.

Guazan, artzain danak,
Seintxu Deuna billatuteko;
geure bildots barriak
izan bediz Berarentzako.

Jaunaren geznaria
dantzubena, zorionsuak!
Jatsi dan Jaun-Goikua
dazabenak, zoriondunak!

.....

Gure Miguel Unamuno olerkari ta filosofo ospetsua
gaztelarazko erdal izkuntzan munduratu eban beren
jakinduriaren gogai ta buruzpidea. Bahia, bere gazte
denporan euzkerei muzin egin baiño lenago, euzke-
rea oraindik aintzakotzat artzen eban egunetan ondo-
rengo abesti, bertsuokaz gure euzkerea goraldu nai izan
eban.

GABON-ABESTIA

Iru errege aundiak
eldu dira urrutik,
Aur baten ikustera
munduko edertarik.

Geure euskera baiño
berba ederrago
ezta gauza ain aundi
zelebratutako.

Artzaiak Belen'era
dakarten adiñak,
ardiak elur baiño
bai txuriagoak.

Eskatu biar degu
poza geure etxian,
ta, lurreean pakea
gizonen artian.

Lurra apaindua dago
ta elurrez betia;
jai aundiaren dala,
ta eder jantzia.

Odoien zan batia
lenago mundua,
gabaz ta illargi gabe
eta asko illuna.

Zergaitik lurra dago
ederto apaindua?
Zeren Jesus ederra
mundura eldu da.

Urten zuan orduan
egiaren argia,
ta mundu gelditu da
odoien garbia.

Zeruko aingeruak
txoriak bezela,
danok kantatzen dute
Jauna eldu dala.

Gaur da pozaren gaba,
kanpoan otza da,
baiño geuren barruan
asko da berua.

Arek kantatzen dute...
ta poz aundiagoz,
Jaungoikoaren jaiotza
geure gozo euskerak.

Goazen, goazen, anaiak,
Aurra ikustera;
goazen, goazen len-bai-len
anaiak, aurrera!

ABESTIAK

Euskal elertian bat baiño geiago dira ta izan dira Jaungoiko-Semeari buruz sakondu ta edertu diran idazle ta olerkariak: Arrese Beitiak, Arrugain ta, abar ta, abar... Ona ba, Enbeita-tar Imanol'en Gabon Abesti baten amaierako zortzikoa:

"Goyezan Belen'era
artzain ta bakaldun
Jaungoiko-Semeari
egitera lagun,
Bere Soin Doneari
maitez egiñaz mun
zeru-lurren Jaubetzat
Ezagutu daigun."

Lauaxetak, gure aberri-ziñopa, olerkari begikoak lotan dakus izarra:

"Galtsu ganian, lotan izarra,
gizon guztien izar bakarra.
Izar eder orren maitasun-izpiak
beregianatu daroz minduen begiak.

Miren'en izar, bitxi argia,
lo-aruan da ume zolia."

Txomin Agirre ondarrutar ospetsuak (Euskal-Esnalea, 1911, 170 orrialdean) Ona, apurño bat:

"Jaiki gizonak, jaiki artzaiak.
Jauna omen dator eskale;
egin dezagun Aur Jaungoikoa
animen guztien jabe.

Ara nun dagon
jaio berria,
Jaungoiko izanik
lurrez jantzia."

Aita Onaindiak, onela:

"Belen, Belentxo,
zein bitxia dan
zure Semetxo!

Len ezeuki ba-ziñan,
aberats oraingoan:
zeru-lurren Jaubea
zuk dozu altzoan.

Zein jori zarean!
Zugandu naizu ni be,
poz-izpi betean."

Lizardi be, emen dogu poema eder batean (Xabier-txoren Eriotza):

"Gabon-egun goizean
Jaun-aita pozik
jaiki, ta aingerutxoak

"Poztu ene txikiok,
gaur arratsean
aurtxorik ederrena

orra non bildu ditun,
esanik:

jaiotzekua baita
lurrean."

Lekuona eta Etxabaguren, il-barri dogun oyartsua-rraren abots ospetsua be aipatu barik ezin geinke itzi (1894-1987).

GABONETAKO LAUKIA (Gaberdia)

"Amabiak din-dan...
Maria gandikan
Jesus jaio zaigu.
Izarrak zeruan,
elurra munduan...
au bai-dala negu!

"Zabiltz azkar, Jose;
Ama eta Seme
otzak ilko ditu...
Ta al dan bezain azkar
lasto ta txotx ta, abar,
Jose'k sua piztu.

"Jose'k sua piztu
ta ollarrak kantuz
"Jaio dala Jesus."

Eta, beraz, onaño eldu garan ezkerro ia leku apur bat geiago emoten dautsegun euskalari onen beste gabon-kanta aintzagarrri oni:

Aurtxoa troxatzen
Ama Maria...
Zer dion kantatzen
entzun zagan:

"Lo egizu, maite;
lotan geldi zaite.
Lo egiten ba-dezu
ama poztuko dezu.

—"Ez egin negarrik,
nere maitea;
ez egin negarrik,
nere kutun."

Lotan zaude, maite...
Naiz, esnatu zaite.
Esnarik bazaude zu,
ama txoratzen dezu.

Troxatu du, eta
seaskaritzen...
Orduko eleta
entzun zagan.

Belen'go Arroza!
Gaur, amaren poza;
bigar nere samiña...
Ai! beti aur baziña!
Ai! beti aur baziña!

-----Goazen Orixe'rengana gogoan izan daigun:

Jainko-Seme

Yaubek esan dit. Zu, nere
[seme!

Gaur bertan sortu zaitut
[(Eres 2,7)
Asieran Itza ba-zan,
Eta Itza Jainko zan.

Jainkoagan Au asieran.
Bere bidez egiña da
egindako guztia,
eta Bera gabe
ez da egin ezer (In. I-3).

MUNIATEGI-tar SABIN

AUR-EZIKETA (18)

JUANTXO-TXIKI ZURE ANTZEKO

Umeak zer ikusi a ikasi eta zer entzun a erantzun. Orain Iau urte dirala, eskolatik etozen gurasoak euren umetxoekin arratsalde. Umetxo bat negarrez etorren bere ama gaztearen ondoren. Onek asarre:

—Zer ostia nai dozu?

Zer nai dozu zure umetxoak ikastea eta zer nai dozu zure umetxoa izatea? Gizon eta emakume egiñak? Mingaiñ onekoak? Egiaren maitaleak? Justiziaren serbitzariak? Maitasunaren zabaltzailleak...?

Zagoz zu bere aurrean gizon oso eta emakume egiña. Zagoz bere aurrean egiaren maitale: guzurra dariola ikusten bazaitu, zelan ikasiko dau egia maitatzen? Oker bazabiltz eta justizitik urrun, nundik ikasiko dau zuzen ibiltzen eta zuzentasuna maitatzen? Gorrotoak erretako biotza agertzen badozu Juantxo-txikiren aurrean, nun ikasiko dau onek maitasuna?

Egia, iñoren eskubideen errespetoa eta begirunean, maitasuna... orreik danak maite dozuz? Benetan eta biotzetik ala ortzetatik kanpora bakarrik?

* * *

Zer ikusi... Juantxo-txiki egun osoan zuri begira dago. Zer ikusten dau zu ikustean? Zure antzeko izango da. Zuk zer egin, axe egingo dau berak. On-bidetik ibiltea oker-bidetik ibiltea baiño gaitzagoa da. Neketsuago be bai... Alan be, zu bere aurrean ona bazara, ona izaten laguntzen dautsazu zure aurrari, zure umetxoari; sermoirik ederrena ejemploa da.

Ikas-bide ona erakutsi, ejemplo ona emonez. Orrelan Juantxo-txikik zuk erakutsitako ikas-bidetik, zeure bizitzetik, ikasiko dau ona izaten...

* * *

Ejemploaren bidea da biderik luzeena; baiña, onena. Indarkeriak, barriz, bide motzak ditu. Ona izan dedin, Juantxo-txiki indarrez biurtzeak ez dautzu frutu aberatsik emongo. Ez dot uste. Indarraren arrazoia baiño obea dozu arrazoiaren indarra: indarraren orde, arrazoi-bidea erabili. Eta, arrazoi-biderik onena zure bizitza da. Zure ejemploa.

Alan be ejemplo onaren frutuak ez dira sortzen nai ta nai ez. Juantxo-txikik nortasunaren jabegai da eta azken-muturrean bere esku dago ona ala txarra aukeratzea.

* * *

Norki edo persona geienak indarkeria gorroto dabe. Geienak esan dogu; baiña zori txarrez badira gogoz indarkeria maite dabenak eta besteen bizkarrean indarra probatzea gogoko jakenak.

"Mal domado, buen domador", esan oi da erderaz: eurak indarra euren bizkarrean jasan ezin dabenak orreixek dira askotan indarkerirako amorratuenak; baiña, beti indarra iñoren bizkarrerako. Nortasuna dabenen artean, animala biurturik ez bada, probetxu gitxi dator indarkeria utsetik. Okerra bera aundiagoa irabazia baiño.

* * *

Bere buruaren jabe egin nai badozu Juantxo-txiki, persona bateri dagokion eran ezi bearko dozu zure ejemploaren bidez eta ez indarkeriz. Indar utsez ez dozu sekulan bere biotzik irabaziko. Bere biotzaren giltza berak dau bere eskuetan eta ez dautzu aren aterik irikiko, zuk on merezi ez badozu.

Merezimenduak zure bizitz onaren bidetik aterako dozuz eta ez indarkeriz. Indarraren kontrako griña jaiotzetik dario Juantxo-txikiren biotzean. Ordu artatik bertatik.

Bizkaia beti



Gure erriaren aurrerapenagaitik.
 Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.
 Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.
 Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

Bizkaia beti.